

# Higienea zaindu beharra dago

Jendea gero eta kexatiago dago inguruan sumatzen duen higiene falta dela-eta; gai horri buruz jardungo dugu sekuentzia honetan.

Ariketa hauek dituzu:

- Bideoa ikusi eta, bideoa ondo ulertu duzun jakiteko, ulermen-galderei erantzun
- Higieneari buruz hitz egin, tartean denbora-maiztasunarekin lotutako hizkuntza-formak erabiliz.



## 1. Garraio publikoetako higiena

Telebistako programa batean komentatzen dute higiene falta dela-eta, zer ari den gertatzen zenbait hiritan. Ikusi bideoa eta galderei erantzun

### 1. Salamancako udalak...

- higiene-neurriak jarrita dituen arren, jendeak ez ditu betetzen.
- gutxieneko higiene-neurriak hartuko ditu, jendea autobusetan eroso joan dadin.
- zigorrak jartzea erabaki du, jendea hobeto porta dadin.

### 2. Bartzelonan egindako inkesta baten arabera...

- gehiengo handi bat garbitasun-neurriak hartzearen aldekoa da.
- garraio publikoetako erabiltzaileek ez dituzte garbitasun-arauak betetzen.
- garraio publikoetako giroa txarrera doa.

### 3. Programaren bukaera aldera, tertuliakide batek zabaldu nahi duen mezua da...

- desodoranteetan dakarren informazioa ez dela beti egia izaten.
- dutxatzea ez dela aski, desodorantea ere bota beharra dagoela.
- nahiz eta desodorantea bota, dutxatu beharra dagoela.

<https://labur.eus/iQIjB>



## 2. Higiene pertsonala

Talde txikitan jarrita, komentatu ondoko hauek:

### A) Bideoan ikusitakoa

- Zuek ere inpresio bera daukazue?: garraio publikoetan usain txarra egoten da jendearen higiene faltagatik?
- Hartuko al zenukete neurriren bat gutxieneko higiena betearazteko?

”  
Oso gai delikatuia iruditzen zait, aurrera eramateko zaila  
”



### B) Astean behin

Segidan dituzue higiene pertsonalarekin lotutako neurri batzuk. Zerbait jarri edo kendu egingo zenukete zerrenda horretatik?

- 1-Egunero dutxatzea
- 2-Desodorantea erabiltzea
- 3-Burua txanpuarekin garbitzea
- 4-Eskuak garbitzea
- 5-Hortzak garbitzea
- 6-Esku-oinetako azazkalak moztea
- 7-Arropa garbitzea erabili ondoren

Zer maiztasunez bete behar genituzke neurri horiek?

**Maiztasuna adierazteko**, hizkuntza-forma hauek erabil ditzakezue:

Galdetzeko: **zenbat aldiz, zenbatean behin, zenbatetan** .... garbitzen duzue burua?

Erantzuteko: **egunero, astean behin, astean bitan, egunean 3 aldiz**...

“  
Nik uste dut burua astean behin garbituta nahikoa dela; ez da komeni gehiegi garbitzea  
”

Bukatzeko, komentatu denen aurrean izandako ideiarik interesgarrienak.

# ERANTZUNAK

## 1. Garraio publikoetako higieena

### 1. Salamancako udalak...

gutxieneko higie-neurriak hartuko ditu, jendea autobusetan eroso joan dadin.

### 2. Bartzelonan egindako inkesta baten arabera...

gehiengo handi bat garbitasun-neurriak hartzearen aldekoa da.

### 3. Programaren bukaera aldera, tertuliakide batek zabaldu nahi duen mezua da...

nahiz eta desodorantea bota, dutxatu beharra dagoela.

# TRANSKRIPZIOA

KLAUDIO LANDA. Ai ama, autobusera. Joaten zarete autobusez?, edo metroz?

KOLABORATZAILEA 1. Lehenago gehiago.

KOLABORATZAILEA 2. Gu bai.

KOLABORATZAILEA 3. Algortan ez dago metrorik.

KLAUDIO LANDA. Rakatumba News. Jarraian doaz albisteak. Etengabe gauzak gertatzen ari direla. Salamancan, bertako udalak araudi berria egin nahi du. Problema handia omen dago autobusetan. Autobusetara joaten zaretenean, batzuetan (usain txarraren keinua), ez? O sea, ondokoak, ze usaina duen eta...

Bueno ba, Salamancako udala araudi berria prestatzen ari da, eta nik badaukat hemen dokumentuaren parte bat. Entzun ondo: "Gainerako erabiltzaileen deserosotasuna saihesteko, higie-baldintza minimoak ezarriko dira". Ez da udalerrri bakarra. Adi, Bartzelonan gertatzen ari dena. Problema handia sortzen ari da higiearekin, hau da, garbitasun ezarekin, batez ere garraio publikoetan. La Vanguardia egunkariak egin du inkesta bat Bartzelonan. Adi zer-nolako ondorioak. Ondorioetariko bat, bidaiarien % 98k garraio publikoan ezarriko luke araudi bat higie ona edo garbitasuna mantentzeko. Horrek esan nahi du, aizu, autobus batera igo eta aguanta ezina dela.

KOLABORATZAILEA 4. Zabor horrekin, autobusetako zikina hori da??

KLAUDIO LANDA. A bai?

KOLABORATZAILEA 4. Benetan. Askotan tokatu da. Usain hori dago... Ni gutxitan joaten naiz autobusera, benetan, baina tokatu izan(du) zait ondokoa usain ederrarekin. Eta nik gauza bat esan nahi diot jendeari, ez bazaizu inporta, etxean zaudeten guztioi. Jendeak gero erosten du desodorantea. Eta desodoranteak askotan jartzen du 48 ordu.

KOLABORATZAILEA 5. Baina hori batzuetan gezurra da, Mikel.

KOLABORATZAILEA 4. Horrek ez du esan nahi 48 orduan egon behar duzula dutxatu gabe.

KOLABORATZAILEA 6. Dutzatu gabe.

KOLABORATZAILEA 4. Bale. Tartean ere dutxatzeko. Agian aguantatuko du 48 ordu usain horrek, baina dutxatu, mesedez. Dutzatu egin behar da, bai.

